Alalcomenaeus

Alalcomenaeus Kanbriar garaian bizi izan zen artropodo bat da, gaur egun iraungita dagoena. Espezie bakarra ezagutzen da, *Alalcomenaeus cambricus*. Duela 505 milioi urte inguru bizi izan zen.

Eduki-taula

- **Aurkikuntza eta etimologia**
- **Deskribapena**
- **Bizimodua**
- **Taxonomia**
- **Erreferentziak**
- **Kanpo estekak**

Alalcomenaeus

Irudi gehiago

Sailkapen zientifikoa

Erreinua	Animalia
Filuma	Arthropoda
Klasea	Megacheira (en)
Familia	Alalcomeneidae (en)
Generoa	***Alalcomenaeus*** [[|]]

Aurkikuntza eta etimologia

1920. hamarkadan Charles Walcottek aurkitu bazuen ere 1970.ean deskribatu zuen Alberto Simonettak[1]. 300 fosil inguru bildu zituen Simonettak eta animaliaren morfologiari buruzko informazio osatua bildu ahal izan zuen[1]. Atena jainkosa greziarraren omenez honen jaiolekua zen *Alalcomenae* izena eman zion, *cambricus* aldiz existitu izan zen garaiari dagokio. Kanbriarreko artropodoen artean zabalduena eta gehien iraun zuena izan zenez fosil askoaurkitu dira, 600-dik gora Burgess Shale eta Chengjiang artean.



Alalcomenaeus-en interpretazio artistikoa.

Deskribapena

Opabinia fosil ezagunaren antz handia zuen[2]. Sei zentimetrotako luzera zuen eta trapezio itxurako buruan bi begi pedunkulatu eta beste hiru begi txiki zituen aurrealdean. Antena luze pare bat ateratzen zitzaizkion burutik eta beste bi luzakin pare ere bai, motzagoak eta birramoak.

Gorputzak 11 segmentu zituen, exoeskeletoz babestuak, eta bakoitzetik luzakin birramo pare bat ateratzen zitzaizkion[1]. Luzakin bakoitzaren adarretako batek hanka arantzatsuen itxura zuen eta beste adarrak luma edo arraun itxura. Telsonak ere arraun zapalen itxura zuen eta alboetan arantza zapalak zituen[1].

Bizimodua

Animalia igerilaria zela pentsatzen da, hanka itxurako adarrek ibiltzeko baino sustratuari edo elikagaiari eusteko balioko baitzioten. Sarraskijalea izango zen baina interpretaziorik berrienek harraparia izango zela ere proposatu dute[1].

Taxonomia

Hasiera batean krustazeoen arbasoen taldean sartu zuten. Beranduago Opabiniaren taldeko kide bihurtu zuten, baina gaur egun araknomorfoetatik gertuago egongo zela pentsatzen da[3].

Erreferentziak

1. ↑ **a b c d e** (Ingelesez) Briggs, Derek E. G.; Collins, Desmond. (1999). «The Arthropod Alalcomenaeus cambricus Simonetta, from the Middle Cambrian Burgess Shale of British Columbia» (https://onlinelibrary.wiley.com/doi/abs/10.1111/1475-4983.00104) *Palaeontology* (6): 953–977 doi:10.1111/1475-4983.00104 (https://dx.doi.org/10.1111%2F1475-4983.00104) ISSN 1475-4983 (http://worldcat.org/issn/1475-4983) . Noiz kontsultatua: 2019-04-07.
2. ↑ (Ingelesez) Zhang, Xingliang; Briggs, Derek E. G.. (2007). «The nature and significance of the appendages of Opabinia from the Middle Cambrian Burgess Shale» (https://onlinelibrary.wiley.com/doi/abs/10.1111/j.1502-3931.2007.00013.x) *Lethaia* (2): 161–173 doi:10.1111/j.1502-3931.2007.00013.x (https://dx.doi.org/10.1111%2Fj.1502-3931.2007.00013.x) ISSN 1502-3931 (http://worldcat.org/issn/1502-3931) . Noiz kontsultatua: 2019-04-07.
3. ↑ (Ingelesez) Lieberman, Bruce S.; Hendricks, Jonathan R.. (2008/05). «New phylogenetic insights into the Cambrian radiation of arachnomorph arthropods» (https://www.cambridge.org/core/journals/journal-of-paleontology/article/new-phylogenetic-insights-into-the-cambrian-radiation-of-arachnomorph-arthropods/FD30E57516CE4677D8A3CC0CE1374B3B) *Journal of Paleontology* (3): 585–594 doi:10.1666/07-017.1 (https://dx.doi.org/10.1666%2F07-017.1) ISSN 0022-3360 (http://worldcat.org/issn/0022-3360) . Noiz kontsultatua: 2019-04-07.

Kanpo estekak

- Burgess Shaleko webguneko informazioa (https://burgess-shale.rom.on.ca/en/fossil-gallery/view-species.php?id=18)

Autoritate kontrola	**Wikimedia proiektuak** · Datuak: Q289293 · Multimedia: Alalcomenaeus (https://commons.wikimedia.org/wiki/Category:Alalcomenaeus) · Espezieak: Alalcomenaeus **Datu taxonomikoak** · GBIF: 4884669 (https://www.gbif.org/species/4884669) · Paleobiology Database: 19060 (http://fossilworks.org/bridge.pl?a=taxonInfo&taxon_no=19060)

"https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Alalcomenaeus&oldid=7345542"(e)tik eskuratuta

To ɔar

Nabigazioa

- Azala
-
- Txokoa
- Albisteak
- Aldaketa berriak
- Ausazko orria
- Laguntza
- Dohaintza egin

Tresnak

- Honanzko lotura duten orriak
- Lotutako orrietako aldaketak
- Fitxategia igo
- Orri bereziak
- Lotura iraunkorra
- Orri honen datuak
- Artikulu hau aipatu
- Wikidata itema

Inprimatu/esportatu

- Liburu bat sortu
- PDF gisa jaitsi
- Inprimatzeko bertsioa

Beste proiektuetan

Wikimedia Commons
Wikiespezieak

Beste hizkuntzak

- Deutsch
- English
- Español
- Français
- Italiano
- Nederlands
- Norsk nynorsk
- Русский
- Українська

Aldatu loturak

WIKIPEDIA Entziklopedia askea

Orriaren azken aldaketa: 14 abendua 2019, 21:00.

Testua Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziari jarraituz erabil daiteke; baliteke beste klausularen batzuk ere aplikatu behar izatea. Xehetasunen berri izateko, ikus erabilera-baldintzak.